



90/2012 Ebazpena, 2012ko otsailaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzen dira aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrendak (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendak), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ziren kategorietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (EHAA, 232 zk, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106 zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak egin eta kudeatzea arautzen da, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen bidez (ekainaren 6ko 502/2011 Ebazpena), 2011ko aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen, 2011ko ekainaren 8tik 27ra (biak barne), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan.


2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren hirugarren atalean jasotzen diren zerrenda-motak kontuan hartuta, esaterako, lanpostu hutsak betetzeko eta erreserbatuen zerrendak (bakanteen zerrendak) eta ordezkapeneko eta aldi baterako zerrendak (ordezkapenen zerrendak), betiere zerrenda berriak erabakian bertan jasotzen diren zerrendak egiteko irizpideen arabera ordenatuta,

EBATZI DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzea 2011ko aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ziren kategorietan.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari hamar egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko otsailaren 29an



Iz.: Tomás Mendoza Carnicero

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA,